

ELKARRIZKETA
MARY BEARD
HISTORIAGILEA



MARTXOAK 8

**OIASO MUSEOA
EMAKUMEAREN
NAZIOARTEKO
EGUNAREKIN**

Oiaso Museoa beti izan da Mary Bearden lanaren jarraitzaile eta miresle.

Martxoaren 8ko Emakumearen Nazioarteko Eguna, guretzat erreferentziazkoa den pertsona baten topaketarekin ospatzea gustatzen zaigu, eta emakume horiek aintzat hartzeak jakintza partekatze eta zabaltzeko balio nahi izaten dugu. 2021 honetan, mundu klasikoaren hedapenean figura garrantzitsuena den Beard doktoarearekin jarri gara harremanetan, haren figura erreferente handia da guretzat, egiten duen ekarpenagatik eta borrokagatik.

Gure Museotik, garai honetako zailtasunak gorabehera, historiari eta mundu klasikoari buruzko ezagutza hurbiltzeko lanean jarraitu nahi dugu, horregatik ilusio berezia egiten digu Mary Beard doktoarek Irungo Oiaso Museoari eskusiban eman dion elkarrizketa interesgarri hau zuekin partekatzeak.

BERE IBILBIDEA

Mary Beard (Much Wenlock, 1955) Cambridgeko Unibertsitateko Ikasketa Klasikoetako katedraduna da. Esparru honetan, Ingalaterrako espezialistarik ospetsuena da, bai komunikabideetan egindako kolaborazioengatik, bai klasikoen hedapen zabalagatik, erromatarren garaiko biztanleen egunerokotasuna eta kultura hurbilduz.

Londresko King 's Collegeko irakasle izan zen (1979-1983); Newnham Collegeko kide 1984tik, eta 2004tik Cambridgeko Unibertsitateko Ikasketa Klasikoen Fakultateko irakasle eta fakultate horretako katedradun; Erromako British Schooleko Arkeologia, Historia eta Letren Fakultateko zuzendari (2002-2006), eta Kaliforniako Unibertsitatean (Berkeley, 2008-2009)

Literatura Klasikoko irakasle bisitari gonbidatua. Gai klasikoei buruzko hamabost lan baino gehiago idatzi ditu, horien artean *Ponpeya. Historia y leyenda de una ciudad romana* (2008), eta *SPQR. Una historia de la Antigua Roma* (2015). Beardek hedabideekin kolaboratu ohi du: The Times egunkariko literatur gehigarriko "klasikoak" ataleko editorea da (1992tik), eta bertan Don 's Life bloga idazten du, eta BBCko irratsaioetan kolaboratzen du; halaber, antzinako munduari buruzko telebistako dokumental ugari egin ditu eta BBCko telebistarako arte-programa bat aurkezten du.

Honako domina eta sari hauek jaso ditu besteak beste: Britainiar Inperioaren Ordena (2013), Oxfordeko Unibertsitatearen Bodley Domina (2016), Gizarte Zientzietako Asturiasko Printzesa Saria (2016), Britainiar Inperioko Komandante Dama (2018) eta Getty Domina (2019). Honoris causa doktorea da hainbat unibertsitatetan, hala nola Madrilgo Carlos III.a Unibertsitatean, Holandako Radboud Unibertsitatean eta Yale Unibertsitatean.



FEMINISTA
KONPROMETITUA DA,
MUJERES Y PODER.
UN MANIFIESTO (2017)
BERE LIBURUAK
ERAKUSTEN DU
HISTORIAN ZEHAR
EMAKUMEZKO
PERTSONAIA
BOTERETSUAK NOLA
TRATATUAK IZAN
DIREN: PENELOPE EDO
MUNDU KLASIKOKO
ATENA JAINKOSATIK
HASITA, THERESA MAY
EDO HILLARY
CLINTONERA ARTE.



OIASSO
MUSEOA

MARY BEARD ELKARRIZKETA

- **Borroka handia egin duzu emakumeek gizarte honetan posizio justua izan dezaten. Zein unetan gaude? Norantz jarraitu behar dugu borrokan?**

Uste dut egoera askoz hobea dela ni txikia nintzenean baino. Sarritan pentsatzen dut nire ama Erresuma Batuko hauteskunde nazionaletan emakumeek botoa emateko eskubidea izan aurretik jaiola zela, eta hil zenerako, lehen ministro emakume bat izan genuen. (Egia da ez zela Margaret Thatcherren zalea, baina poztu egin zen emakume bat ikusteaz 10 Downing Streeten). Beraz, aurrerapena egon da, baina oraindik bide luzea dago egiteko. Oraindik ez dugu soldata-berdintasunik (legedia gorabehera), eta emakumeen ahotsak oraindik ez dira gizonenak bezala entzuten. Jendea orokorrean ikustea gustatuko litzaidake, emakumei 'entzutea merezi' duela pentsatuz... Jakina, batzuek pentsatzen dute, eta nik neuk zortea izan dut horretan. Baina aurrerapen gehiago behar dugu.

- **Askatasunez hitz egiteagatik eta iritzia emateagatik jazarria eta mehatxatua izan da. Zer giza mekanismo, mekanismo sozial, komunikazio-mekanismo, edo... aktibatu beharko genituzke indarkeria sozial hori neutralizatu ahal izateko?**

Ez dakit berehalako irtenbiderik dagoen. Sare sozialak dira une honetan lekurik txarrenak. Arau orokor bat dut: ez esan inoiz sare sozialetan aurrez aurre pertsona bati esango ez zeniokkeenik.

- **Historian zehar idazle eta sortzaileen mundua ezagutarazi duzu, mundu klasikoko emakumeak, guzti hauetatik zein emakume nabarmenduko zenuke?**

Uste dut Margaret Atwoodek aldatu egin duela gizarteak emakumei oraindik egin liezaiekeenaz pentsatzeko modua.

Uste dut, halaber, Chimamanda Ngozi Adichiek zoragarri kapsularatu dituela borroka feminista borrokatzeko oraindik dauden arrazoiak.